HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA (OBBE). 2026. URTEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera, administrazio publikoek finantza-iraunkortasuneko printzipioa bete behar dute, eta zor komertziala iraunkor edo sostengagarria izango da, baldin eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea ez bada berankortasunari buruzko arauak agintzen duena baino handiagoa.

Nafarroako Arartekoaren erakundean, Hornitzaileei Ordaintzeko Batez Besteko Epea kalkulatzeko, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan araututakoa hartzen da oinarritzat, hor zehazten baita zein den administrazio publikoetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia.

Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuaren bidez, aldatu egin da Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretua. Aldaketa nagusia egun kopuruaren kalkuluari buruzkoa da, jada ez baita kendu behar berankortasunari buruzko araudian ordaintzeko ezarritako gehieneko egun kopurua, hau da, 30. Beraz, argitaratu beharreko ratioak honela definituta geratzen dira:

- **Ordaindutako eragiketen ratioa**: Nafarroako Arartekoak ordainketak egiteko batez beste zenbat egun behar dituen adierazten du. Faktura bakoitza ordaintzeko behar izan diren egunak eta ordaindutako fakturen zenbatekoak haztatuz kalkulatzen da.

  Fakturak ordaintzeko behar izandako egunak kalkulatzeko, kontuan hartzen da zenbat egun igaro diren erakundean faktura jaso zenetik faktura ordaindu zen egunera arte.

- **Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa**: datuak kalkulatzen diren egunean ordaintzeke dauden fakturek erakundean batez beste zenbat egun daramaten adierazten du, haztatuta. Fakturek erakundean daramaten egun kopurua kalkulatzeko, kontuan hartzen da zenbat egun igaro diren faktura jaso zen egunetik hasi eta kalkulatutako datuei dagokien epealdiko azken egunera arte.

- **Hornitzaileei Ordaintzeko Batez Besteko Epea (OBBE)**: ordaindutako eragiketen ratioaren eta ordaintzeke dauden eragiketen ratioaren batez besteko haztatua da.

Ondoren, 2026ko informazioa zehazten da.

2026ko URTARRILA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	3	0,49	-	14	9,24	9,67	9,67
Kapital-eragiketak	-	-	-	2	2,69	19,62	19,62
GUZTIRA	**3**	**0,49**	**-**	**16**	**11,93**	**11,91**	**11,91**

2026ko OTSAILA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	31	19,31	22,37	3	0,53	1,09	21,80
Kapital-eragiketak	2	2,69	32,35	-	-	-	32,35
GUZTIRA	**33**	**22,00**	**23,59**	**3**	**0,53**	**1,09**	**23,06**

2026ko MARTXOA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	19	9,02	16,15	1	0,05	8,00	16,10
Kapital-eragiketak	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**19**	**9,02**	**16,15**	**1**	**0,05**	**8,00**	**16,10**

2026ko APIRILA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	22	15,22	5,56	-	-	-	5,56
Kapital-eragiketak	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**22**	**15,22**	**5,56**	**-**	**-**	**-**	**5,56**

2026ko MAIATZA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	15	6,73	13,83	-	-	-	13,83
Kapital-eragiketak	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**15**	**6,73**	**13,83**	**-**	**-**	**-**	**13,83**

2026ko EKAINA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	22	24,40	27,59	7	4,12	0,28	23,64
Kapital-eragiketak	3	1,03	12,06	-	-	-	12,06
GUZTIRA	**25**	**25,42**	**26,96**	**7**	**4,12**	**0,28**	**23,24**

2026ko UZTAILA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	26	16,09	10,19	8	5,84	10,46	10,26
Kapital-eragiketak	1	26,26	2,00	-	-	-	2,00
GUZTIRA	**27**	**42,34**	**5,11**	**8**	**5,84**	**10,46**	**5,76**


2026ko ABUZTUA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	23	11,73	13,74	-	-	-	13,74
Kapital-eragiketak	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**23**	**11,73**	**13,74**	**-**	**-**	**-**	**13,74**

2026ko IRAILA	Ordaindutako eragiketak			Ordaintzeke dauden eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	15	6,69	14,67	2	0,48	-	14,67
Kapital-eragiketak	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**15**	**6,69**	**14,67**	**2**	**0,48**	**-**	**14,67**

2026ko ekitaldian orain arte ordaindutako eragiketa guztiak hartuta, 2026ko hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea atera dugu, eta 14,35 egun izan da. Horrek adierazten du, **2026ko ekitaldian, Nafarroako Arartekoaren erakundeak batez beste 14,35 egunera ordaindu dituela fakturak.**

2026. Urtean	Ordaindutako eragiketak			OBBE
	Eragiketa kop.	Eragiketen zenbatekoa (mila eurotan)	Ordaindutako eragiketen ratioa	
Eragiketa arruntak	176	109,66	16,88	16,88
Kapital-eragiketak	6	29,97	5,07	5,07
GUZTIRA	**182**	**139,64**	**14,35**	**14,35**

Nafarroako Arartekoaren erakundean erregistratutako hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeen hileroko datuekin, 2026ko epean, osatutako seriea erakusten du grafiko honek, bai eta hura osatzen duten ratioak ere:



Bestalde, grafiko honetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea erakusten da 2014ko irailetik, hau da, lehen datuak argitaratu ziren hilabetetik:

